

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri adierazgarrienetakoa: udalerri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatutuen debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, bertze inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere aunitz aldatzen ari da errealitatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aitzinetik; hala ere, aunitzen artean urte aunitzez egindako lanaren uzta agerikoa da: ezagutzak igan egin da, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerri euskaldunen lurgunea handitzea, bertzeak bertze.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela errateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte luzez kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoakizatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreakoa nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bertzetik, euskarak ezinbertzekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz